




# Auto-konposta edo Auzo-konposta



## Zer da?

Hiri hondakinak era egokian biltzea eta tratatzea ez da nahikoa. Legediak ezarritako hierarkiari jarraituz, prebentzioa izan behar da lehenetsia. Arlo honetan etxean konpostatzeko programa bultzatzen du Udalak. Etxeko konpostari esker, hondakin izatera iritsi aurretik **ongarri** bihurtzen dira sukaldeko, lorategiko eta baratzeko hondar organikoak.

Etxeko konposta egin nahi duenak norbere lursail batean jar dezake konpost-gailua, baratzean, lorategian (auto-konposta deitzen diogu honi). Eta horrelakorik ez daukatenean, Udalak prestatutako eremuetan egitea dute aukeran, beste herritar batzuekin auzo-konposta eginez. Une honetan, **Bergaran 520 familia ari da** jada etxeko hondar organikoekin konposta egiten: **410 familia auto-konposta** eginez eta **110 auzo-konpostaren** bidez (horretarako Udalak prestatutako 8 gunetan).

## Zuk ere konposta egin nahi duzu?

Eman izena eta Udalak irakatsiko dizu nola egin eta horretarako behar dituzun materialak doan emango dizkizu. Udalak aholkularitza eta jarraipena ere eskaintzen ditu. Hondakin gutxiago sortuko duzunez, hondakinen bilketa fakturan bonifikazio txiki baten aukera ere izango duzu.

## Konposta egin nahi duzu baina lursailik ez daukazu?

Eman izena zuk ere, **2014an auzo-konposta** egiteko **4 gune berri** prestatuko ditugu.

Informazio gehiago:

[www.bergara.net](http://www.bergara.net)

943 77 91 72 / 943 77 91 50 telefonoetan.

# Denon ardura delako, ondo egingo dugu!



Bergara, 2014ko urtarrila



Hondakinen bilketa sistema berria **2014ko otsailaren 4ean** abiatuko da. Data horren bezperatan Bergaran ditugun zabor edukiontzi berde guztiak kenduko dira eta hondakin organikoa eta errefusa, dagokien egun eta orduetan esekitokietan kokatu beharko ditugu. Hori izango da berritasun nabarmenena.

Gainontzeko hiru gaiak (beira-papera eta ontzi arinak) orain arte moduan dagokien edukiontzietan batuko dira. Ekainera bitarte edukiontzi hauen erabilera egokia den ala ez aztertuko da. Denon ardura izango da horien bidez jasotzen diren gaikako hondakinak ondo bereizita jaso ahal izatea eta zabortegetara bideratu beharrik ez izatea.

Jarraipen estua egingo zaio sistema berriaren ezarpenari eta emaitzak %70 baino baxuagoak badira eta gaizki bereizita edo bereizi gabeko hondakinak botatzen direla ikusten bada. Bi gai hauek ere, papera eta ontzi arinak, esekitokietan atera beharko ditugu ordutegi eta egutegi jakin baten baitan.

Zero zaborrerantz bidean eta sortzen dugun hondakin kopurua kontuan hartuz ezinbestekoa da gaika bildu eta ahal den eta hondakin gehienak berrerabili ahal izateko birziklatzea. Bergararrok hori ondo egiteko aukera izango dugu aurrerantzean, denon artean ondo egingo dugu!



Herritarrentzako hondakinak ateratzeko ordutegia: **20:00-23:00**  
Ontziak jasotzeko: **Goizez ahal den azkarren**

## HONDAKINEN KUDEAKETA - INFORMAZIO BULEGOA

Begarako Udaletxea, beheko solairuan • Tel.: 943 76 46 18

[atezate-bergara@debagoiena.com](mailto:atezate-bergara@debagoiena.com) • [www.bergara.net](http://www.bergara.net)

Astehenetik egunera 10:00-14:00 eta 15:00-19:00 • Eguakitzetan 10:00etatik 14:00etara



## Oinarri oinarrizko pausua:


### Etxe guztietan, 5 ataletan bereizi hondakinak.

Gaur egun, oraindik ere, sukalde askotan ez dira ongi sailkatzen hondakinak. Guztiak nahasten direnez, zabortegetara eramaten dira, eta ondorioz, hauek betetzen ari dira. Arazoaz jabetuta, Europar Batasunak jada neurriak hartu ditu. Horregatik, %30ko tasatik gutxienez, % 70ra igo behar dugu Bergarako gaikako bilketako tasan 2014ko ekainerako.



## Kontuan izan:

### Nola katiatu:



**Gogoratu ontziak atzeko aldean duten euskarririk zintzilikatu behar direla!** Biltzaileak ontzia hustu ondoren kirtenetik zintzilikatuko du, horrela ontzi beteak eta hutsak desberdintzen ditu, kirtenetik zintzilikatzen baduzu nahastu egin daiteke eta batu gabe utzi.

### Non katiatu:



**Esekitokian leku bat izango duzu zure kodearekin.**

Etxean duzun kuboak pegatina bat darama kode berdinarekin. Kontuan izan pegatina.

## Egoera berezietan zer?

**LARRIALDIGUNEAK:** Noizbait hondakin organikoa edo errefusa dagokion egutegi eta ordutegian barruan ezin baduzu atera, larrialdi gunea erabili dezakezu. Larrialdi gunera sartzeko telefono bat egongo da. Zure kodigoa eskatuko dizu eta berau eman ondoren ematen dizun zenbakia teklatutara atea irekiko da.

**Larrialdi guneko telefono zenbakia: 943 25 22 88** (martxoan aktibatuko da).

**Oharra:** Telefonoa martxan jarri arte, giltza Udaltzaingoan eskatu behar da.

## Poltsak erabili daitezke?

### Nola erabili:

**EZ ITXI POLTSAK!**



Aukera dago, ez erabiltzeko, erabili nahi duenak kontuan izan:

**Errefusaren kuboan** edozein poltsa erabili daiteke, beti ere **poltsa itxi gabe** uzten bada.

**Organikoaren kasuan** ere **poltsa konpostagarria** erabili baina **itxi gabe** utzi.

### Non erosi:



**Poltsa konpostagarriak** espezifikoak izango dira, ez da beste marka batekorik onartuko.

**Mankomunitateak eskaintzen dituzten poltsak** salgai egongo dira:

Mujika burdindegia, Imprespal, Xuxu arropa denda, Ninika lora denda, Igaro estetika zentroa, Txikuri belar denda eta Eki-Lur parafarmazian (20ko paketea 1,40€).

## Landaguneak: Ekarpun guneak eta Miniguneak

Ekarpun gunera sartzeko **baserri bakoitzak bere txartela pertsonala eta transferiezina** izango du.




### EKARPEN GUNEAK:

Matxiategi,  
Gorla, Labegaraieta,  
San Juan-Basalgo

### MINIGUNEAK:

Angiozar, Aranerreka,  
Candy, Elosu, Mekolalde,  
Buruñao, Ola, Osintxu,  
Elorregi, Ubera, Kanpazar



074020443273  
BERHARA123

**Zuk eman beharreko kodea**

**LARRIALDIGUNEEN KOKAPENA:**

**Matxiategi eta Labegaraieta**

